



Krisi-kabinetea: gure enpresak arazo ekonomikoak dituenen

Egungo krisialdi ekonomikoak bizitza ekonomikoko alor guztietan eragina izan du, eze-gonkortasun handiko enpresen ahultasuna agerian utziz. Egoera ekonomiko zail batean egonda, zenbait adituk enpresariei eskaini diezaioketen aholku-sorta bildu ditugu.

10-11. orrialdea

Automobilgintzako krisiak milaka lagun kaleratu ditu

4. orrialdea

Foru Ogasunek 732 milioi euro gutxiago bilduko dute

5. orrialdea

ALE HONETAN

• Elkarrizketa



Erramun Osa,
Eusko Jaurlaritzako
Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzaren
Koordinatzailea

8-9. orr.

• Erreportajea



BIKAIN Ziurtagiriak

12. orr.

• Elkarrizketa



Xabier Maidagan
CIC marGUNEko
Zuzendaria

13. orr.

IV JORNADAS SOBRE TURISMO EN ARABA IV. JARDUNALDIAK

18 y 19 de Noviembre 2008 ♦ 2008ko Azaroaren 18 eta 19an

Autobús gratuito ida/vuelta desde Bilbao

(salida de parada de buses Abando-Renfe a las 15:30 horas)

Día 18: Palacio Villa Suso. Plaza machete s/n. Vitoria

Día 19: Txakolinería Beldio. Beldio Baserria-Gardea, Llodio

Ordutegia/horario: De 16:30etatik a 20:30etara

Izenematea eta informazio gehiago ♦ Información e inscripciones

leizaola@leizaola.org ♦ Teléfono 94.421.30.31 ♦ www.leizaola.org

JORNADAS GRATUITAS ♦ DOANEKO JARDUNALDIAK

Zentru bakoitzaren konbalidazio komisioaren baitan UPV/EHUko ikasleek kreditu bat (1) eskura dezakete.
Los/as estudiantes de la UPV/EHU pueden obtener un (1) crédito convalidable.



PROGRAMA

Día 18: Conferencia:
Análisis de la Innovación
tecnológica en el sector vitivinícola:
alternativas a la barrica. Ponente:
Dña. María del Alamo Sanza,
Dpto. de Química Analítica,
Ingenierías agrarias de
la Universidad de Valladolid

Mesa Redonda:
Txakoli de Araba
con Denominación de Origen.
Día 19: Visita guiada y degustación de
Txakoli y productos típicos en la
txakolería Beldio (Llodio)



GazteON kz



STAFF

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 94 421 30 31
 E-MAILA: ekonomiaenkz@leizaola.org
 POSTA HELBIDEA: 612 Posta Kutxatila, 48000 Bilbao
 TESTUAK ETA DOKUMENTAZIOA: Iais San Jose
 MAKETAZIOA: Gonzalo Peña
 EUSKARAREN ARDURADUNA: Labayru Ikaestegia
 EGILEA: Leizaola Elkarte
 HARPIDETZAK: 94 421 30 31 telefonoan.



Bizkaiko Foru Aldundia
 Diputación Foral de Bizkaia
 Ekintza honek Bizkaiko Foru
 Aldundiaaren Kultura Sailaren
 laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hezkuntza Politikarako Saiburuordetza
 DEPARTAMENTO DE CULTURA
 Viceconsejería de Política Lingüística

KULTURA SAILAK
 (KULTURA SAILA HIZKUNTZA
 POLITIKARAKO
 SAIBURUORDETZA)
 DIRUZ LAGUNDUTAKOAK

ADITUAREN GORA / BEHERA IRITZIA

Juan Alberto Arranz

Conta/3 SL
 Aholkularitzako
 Ekonomialaria



Nola gainditu dezake enpresa batek egoera ekonomikoa larria?

Hona hemen hitz gakoak: aurreikuspena, eguneroko doitzea, gardentasuna eta azkartasuna. Orokorrean, enpresa batek larritasun bat duenean, aurreikuspen faltagatik izaten omen da. Hau dela eta, aurreikuspena ez izatean, krisialdia enpresara heltzen da. Enpresa batek zailtasunak ditu diruzaintzan gorabeherak daudean, batez ere, merkatu eta bezeroen mugimenduen eraginez (konpetentzia, alegia). Bestelako arrazoiak erosteketa ezegokien kudeaketa, gastuen desfasea eta kredituen mantentzearen zailtasunak litzateke. Enpresak beti ere krisian egongo balitz bezala bizi behar du (baina maila bereko tentsioarekin, noski). Krisian gaudenean begi-bistakoa izaten omen da eta batetik irtetzen garenean, hurrengoa heldu baino lehen prestatu behar gara. Momentu oroko doitzak egin behar dira enpresan: motibatutako inbertsioa sustatu, hain zuzen ere. Langileriaren hezkuntzan inbertitu behar da. Erosketak arrazoituta izan behar dira. Gutxien gastatu. Bi ekitaldietako galerei aurre egiteko kapital nahiko edukitzea gomendatzen da. Enpresa batek haren produktuetan dinamikoa bada eta azkarra haren jardueretan, estutasunak gainditzeko tresnak izango ditu. Krisia globala denean, egungoa bezala, bat-egiteak aukera interesgarriak izan daitezke.

GORA

Energia Berezitagarrien Azokak 2009ean Barakaldoko BEC-an izango du egoitza

Danimarka, Islandia eta Alemaniako hiriekin lehiatu ondoren, Energia Berezitagarrien Europako Foroak Barakaldoko BEC eraikina hautatu du energia garbien azoka garrantzitsuenetarikoa bertan ospatzeko. 2009ko ekainaren 9tik 1era arteko iraupena izanda, azokak energia berezitagarriekin erlazioatutako 5.000 profesional eta 200 erakusketaririk gora bilduko ditu.

Azoka urtero antolatzen duen konpainiak, Turret Middle East delakoak, Euskadi aurreratu du 2009an erakusketaren egoitza izateko, "euskal herrialdeak energia garbiekiko erakutsi duen atxikimendua" dela eta. Gainera, Euskadik "petro-



Barakaldoko BEC Azoka biltzeko gune garrantzitsu bihurtuko da

lioia eta ikatza bezalako erregai fosilen erabilera murrizteko asmoa erakutsi" duela adierazi dute antolatzaileek.

Izan ere, 2010erako euskal energia-eskariaren %12 energia berezitagarrietatik etortzea objektibo gisa defini-

tu du Eusko Jaurlaritzak; besteak beste, eguzkitik, airetik eta uretatik energia garbien erabilera jorratzea, alegia.

BEHERA

Zabor kredituen sistemak munduko egoera finantziarioaren suntsiketa ekar dezake

Euskadiko hotelei dagokienez, gure herria bisitatu duten bidaiarien kopurua %4 jaitsi da. Eustatek aurkeztutako datuen arabera, 2007ko

irailean baino ia 7.000 bidaiari gutxiago izan dituzte hotelek aurtengo hilabete berean, guztira 186.950 bidaiariarekin. Araba izan da jaitsierarik han-

diena izan duena, 7 puntu galdu baititu. Gipuzkoak eta Bizkaia, bestalde, %3ko beherakadak izan dituzte.

Bidaiarien jatorriari dagokionez, Espainiar estatuko bidaiariak, batez beste, %9ko beherakada izan dute. Era berean, atzerriko bidaiari gutxiago izan dira hiru lurralde Historikoetan. Arabako galera %42koa izan da, Gipuzkoakoa %7koa eta Bizkaikoa %3koa.

Landa-turismoko hotelak izan dira datu baikor bakarra izan dutenak, Eustatek dituen datuen arabera. Horrela, turismo mota honetako bidaiarien sarrerak eta gaualdiak 6 puntu igo dira joan den urtearekin konparatuta. Araba izan da bidaiari izan dira hiru lurralde Handiena izan duena, %28rekin. Bidaiari horien %38 kanpotik etorritakoak izan dira.



Euskadiko hotelek bidaiari gutxiago izan dituzte


KOMIKIA



ALBISTEAK

Gamesak hirukoiztu egin ditu mozkinak, irailera arteko epean

Gamesak, haize-sorgailuak ekoizten dituen enpresak, irabaziak hirukoiztu ditu urte honetako lehenengo bederatzik hilabeteotan; hain zuzen ere, 288 milioi euro irabazi ditu. Irabazi horren zatirik handiena eguzki-energiaren alorraren salmentari dagokiola azaldu du Gamesak, Balore Merkatuko Batzorde Nazionalari zuzendutako txostenaren arabera. Horrela, negozio honen salmentarekin izandako mozkinen deskontua eginez, enpresaren diru-sarrerara 143 milioi eurokoa izan da, eta, aurreko ekitaldiko epe berarekin konparatuta, mozkinen hazkuntza



Gamesen haize-sorgailuen salmentek gora egin dute

dea %67koa izan da. Jardueren hazkuntzari eta haize-sorgailuen prezioen gorakardari esker, taldearen sal-

mentak 2.809 milioi eurokoak izan dira, eta horretaldearen %40ko hobekuntza ekarri du.

Iberdrolak joan den urtean baino %53,8 gehiago irabazi du aurten

Balore Merkatuko Batzorde Nazionalari emandako txostenen arabera, Iberdrolaren mozkinak hazi egin dira 2008. urtean zehar. Guztira, 2.481,3 milioi euroko irabaziak izan ditu, joan den urtean baino %53,8 gehiago. Iberdrolak hiru alorrei esker lortu ditu mozkin horiek: energia-iturri berriztagarriak, nazioarteko eremua eta aktiboaren sal-

mentarekin lotutako ezohiko diru-sarrerak.

Berriztagarriei dagokienez, lortutako irabazi gordina 768 milioi eurokoa izan da, eta aurtengo mozkinen %90 alor horretatik etorri da. Nazioarteko zenbait alorren salmentei esker, 386 milioi euroko irabaziak lortu ditu Iberdrolak, eta Gal petrolio-ustategi portugaldarraren %4ren salmentarekin ere irabaziak izan ditu.

Iraunkortasunerako Institutua sortuko du Bizkaiko Foru Aldundiak



Energia berriztagarriak sustatuko ditu Iraunkortasunerako Institutuak

Bizkaia 21 Egitarauaren helburuak betetzeko asmoz, Foru Aldundiak martxan jarri

du Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutua sortzeko proiektua. Eusko Jaurlari-

tzako Agenda 21eko xedede betetzea eta iraunkortasunari buruzko txostenak eta analisiak prestatzea dira Institutu berriaren helburuak. Horrela, Bizkaiko Lurralde Historikoko ingurumena babesteko garapen politikaren jarraipena egiteko ardura izango du. Ateratako ondorioak eta lortutako ezagutzak, ondoren, udalen ingurumeneko gaien arduradunei helaraziko zaizkie. Bizkaiko iraunkortasunaren bidea jorratzeko erreminta izan nahi du zentroak.



Iberdrolak iaz baino %53,8 gehiago irabazi du

V JORNADAS SOBRE TURISMO EN GIPUZKOA

2008ko Azaroak 25, 26 eta 27 ♦ 25, 26 y 27 de Noviembre de 2008

Palacio Miramar, Paseo Miracóncha 48 • Ordutegia/horario: De 16:30etatik a 19:30etara

Izenematea ♦ Inscripciones Tlf: 94.421.30.31 telefonoan
DOANEKO JARDUNALDIAK ♦ JORNADAS GRATUITAS

PROGRAMA

Día 25 de Noviembre de 2008:

- Panorama actual del turismo en Gipuzkoa
- Lección Inaugural: Gipuzkoa tan pequeña, tan grande
- Mesa Redonda: alojamiento adaptado a todos los bolsillos

Día 26 de Noviembre de 2008:

- Sectores emergentes de turismo: innovación en el sector turístico
- Conferencia: Potenciación del turismo Vasco desde el ámbito de la Ciencia
- Mesa Redonda: agentes que impulsan nuevas formas de turismo

Día 27 de Noviembre de 2008:

- Visita a una sidrería y degustación de productos típicos de Gipuzkoa.

PROGRAMA



ALBISTEAK

Automobilgintzako Enplegu Erregulazioko Espedienteek milaka lagun kaleratuko dituzte Espainiako estatuan

Asteak pasata, kotxeen ekoizpeneko industriak milaka langile kalean uzten dituen Enplegu Erregulazioko Espedienteak aurkeztu ditu. Merkatuko eskariaren murrizpen-erara moldatzeko asmoz, Seat, Bridgestone eta Nissan izan dira produkzioa gutxitu eta, horrekin batera, langileak kaleratu dituzten azkenetarikoak.

Horrela, Nissanek 1.680 lagun kaleratuko ditu. Urriari aurkeztu duen Enplegu Erregulazioko Espedientearen arabera, Bartzelonako lantegian lan egiten duten 1.600 lagun baino gehiago langabezian geratuko dira. Pasa den hilabetetik 2009. urteko irailera arte, Montcada eta Zona Francako ekoizpen-zentroak langile kopurua murrizteari ekingo diote.

Ia 2.000 lagun kalean utziko dituen erregulazio honek ekoizpen txanda batera murriztuko du produkzioa, Nissaneko arduradunen arabera "jarduera egungo merkatuko eskarira egokitzeko" asmoare-



Kotxeen ekoizpenak behera egin du azken hilabeteetan

kin. Izan ere, arduradunen aburuz, "erabakia hartzea zaila baina beharrezkoa izan da, etorkizunean Bartzelona-

ko lantegiaren iraunkortasuna mantendu dezagun".

Bartzelonako Nissan lantegia bere ekoizpen tasa

murriztuz joan da urtez urte. Aurtengo ekoizpen tasa 130.000 unitatekoa izan da. Datorren urterako aurreikus-

penak 110.000 unitatetan zehazten du ekoizpena. 2007. urtean, marka japoniarrak 193.000 unitate fabrikatu zituen.

Seatek, bestalde, 750 langilerentzako Enplegu Erregulazioko Espedienteak aurkeztu du, ekoizpenaren "doitzea" bermatzeko. Horretaz gain, egun batzuetarako aurreikusita zeuzkaten lan-etenaldiak mantendu egingo dituzte. Seateko zuzendari-tzatik espediente hauen beharra defendatu dute, "jadanik ekoizita dauden kotxeen pilaketa ekiditeko eta ekoizpena egungo eskarira moldatzeko". Doitze horren ondorioz, Seatek 22.250 kotxe unitate gutxiago egingo ditu ekitaldiaren amaierarako.

Seatek bezala, Bridgestonek ere lan egutegiko 16 egungo lan-etenaldia ekarriko duen Enplegu Erregulazioko Espedienteak aurkeztu du. Espedienteak Espainiako estatuko Bridgestoneko langileen %64-rengan izango du eragina; 2.804 lagunengan, hain zuzen ere.

Industriako Prezioen Indizea %8,1 hazi da irailean, petrolioaren eta energiaren eraginez

2007. urteko irailean baino %8,1 gehiago igo da Industriako Prezioen Indizea aurtengo irailean, Estatistikarako Institutu Nazionalaren datuen arabera. Erregaiaren, gasaren eta energia elektrikoaren prezioen igoeren ondorioz eman da gorakada hori. Zehazki, petrolioaren eta kokearen fintzea (%32) eta gasaren eta energia elektrikoaren ekoizpena eta banaketa (%13,8) izan dira urteko gorakada honetan zeresan handiena izan dutenak. Abuztuarekin konparatuz, industriako prezioak %0,7ko beherakada izan du irailean. Kokearen eta petrolioaren fintzea (%-5) eta metalurgia (%-1,7) izan dira gehien jaitsi diren jarduerak.

Abuztuarekin alderatuta, prezioa gora egin duten



Petrolioaren prezioa %32 igo da

jarduera industrialen artean industria kimikoa dugu, %0,7rekin. Haien artean, kautxu eta plastikozko materialiezko produktuen ekoizpenak %0,5eko gorakada izan zuen.

Etxebizitzen salmentak %31,2ko beherakada izan du urtariletik ekainera

Etxebizitza Ministerioaren datuen arabera, %31,2 etxebizitza-unitate gutxiago saldu dira urteko lehen seihilekoan. Etxebizitza motaren arabera, bigarren eskuak izan dira beherakada handiena izan dutenak joan den epe berarekin konparatuta, %12,7 gutxiago saldu baitira.

Euskadin, 2007ko urtariletik ekainera bitartean, 1.908 etxebizitza saldu ziren; aurtengo 6 hilabete horietan, berriz, salmenta-kopurua 1.629 etxebizitza bako ez da izan. Beherakada %17,2koa izan da, beraz.

Familien zor maila altua, interes tasen igoera eta etxebizitzen prezioen gorakada, besteak beste, izan dira etxebizitzen eskaria murriztu duten faktoreak. Horren ondorioz, stock-ean dauden etxeen kopuruak hazkunde nabarmena izan

du. Salmenten jaitzierekin batera, banketxeek etxebizitza ordaintzeko emandako hipoteka kopuruek ere behera egin dute, joan den urtean baino %28,65 hipoteka gutxiago eman baitira.

Bigarren eskuko etxebizitzek %4,9ko beherakada izan dute aurtengo bigarren hiruhilekoan. Horrela, metro karratuko prezioa, urtariletik irailera arteko epealdian, %5,6 merkatu da.



Iaz baino etxe gutxiago saltzen dira aurtun

ALBISTEAK

Foru Ogasunek iaz baino 732 milioi euro gutxiago bilduko dituzte

Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak eta Eusko Jaurlaritzak 2009. urterako diru-sarreraren aurreikuspenen beharpena egin izan behar dute. Darabiltzaten datuen arabera, Euskadiko Ogasun Sailek uste baino 732 milioi euro gutxiago bilduko dituzte. Diru-sarreraren tasei dagokionez, aurten iaz baino %1,3 diru gutxiago bildu da. Diru-bilketa, guztira, 13.550 milioi eurokoa izango da datorren ekitaldirako.

Datorren urterako jasoko duten diru kopurua murrizteaz aparte, aurtengo aurrekontutik ere murrizketa izan-

go dute Euskadiko udalek, 110 milioi euro inguru itzuli behar izango baitituzte. 2008. urterako, Euskadiko udalek 1.536 milioi euro jaso zituzten eta, diru kopuru horretatik, %7 inguru itzuli behar izango dute, esan bezala, 100 milioi euro baino gehiago. Banatzeko orduan, Foru Aldunditik gehien jaso zutenak izan zirelako, Araba eta Bizkaia izango dira diru kopururik handiena itzuli behar izango dutenak.

Datuen arabera, Euskadiko udalek 1.400 milioi euro gutxiago sartuko dituzte euren diru-kutxetan. Lurralde Historiko bakoitzak an-



Bizkaia Foru Aldundiak aurrekontu murriztago izango du aurten

tzeko eran egingo dio aurre horri. Horrela, Bizkaian, diru-sarreraren murrizketa Barakaldo, Santurtzi, Sestao

eta Getxoko zinegotzien soldatak bere horretan utziko dituzte eta inbertsioak %20 murriztuko dira. Araban ere uko egin diete udaletako zinegotzien soldaten igoerei, eta eguneroko gastuen murrizketaren alde agertu dira udaletan. Gipuzkoako alkateen eta euren gobernu-taldeetako kideen soldatek ere ez dituzte igoerak izango, eta Lurralde Historiko horretako Ogasun eta Finantza Sailak eguneroko gastuen murrizketari ekin dio. Horretarako, "paperaren eta elektrizitatearen kontsumoa", besteak beste, aurrezteko neurriak jarriko ditu martxan.

Fagorrek sukaldeko altzarien bere lehenengo dendak ireki ditu Txinan



Quindaon, Txinako hirian, irekitako denda berria

Fagor Etxetresnak enpresak sukaldeko altzariak saltzen dituzten bi denda ireki berri ditu Txinako bi hiritan, Quindaon eta Ningbon, hain zuzen ere. Denda biak merkataritza-guneetan kokatu dituzte eta jadanik publiko-ara zabalik daude. Biak sukaldeko altzarietan espezializatuta daude. Fagor Etxetresnaren kanpoko harremanen arduraduna den Leire Aguirrebeñaren aburuz, "merkatu txinatarrean oso harrera ona izan du Fagorrek, berrikuntza eta kalitatezko sukaldeetan erreferente den Europako marka baita".

Asiako merkatuaren aldeko apustua hurrengo urterako erronka bihurtuko da.

Ekialdean haren presentzia areagotzeko asmoz, Fagorrek beste 6 edo 7 salmenta-gune berri zabaltzeko proiektua dauka, Wuxi, Shanghai eta Beijing hirietan. Fagorrek bi ekoizpen-lantegi ditu Txinan dagoeneko. Fagor etxetresna elektrikoen Europako bosgarren ekoizlea da. Europako merkatuko kuotaren %6 bereganatu du eta 2007an 1.753 milioi euroko fakturazioa izan zuen.

PRAKTIKA EGOKIAK ETA ESKARMENTU ARRAKASTATSUAK GUTXITUTAKO HIZKUNTZEN ERABILERA GAZTERIAN SUSTATZEKO BILTZARRA

Bilbo, 2008ko Azaroaren 20 eta 21a

- Hizkuntza aniztasuna eta hizkuntzartetasuna: hizkuntzen etorkizuna guztaren esku dago.
- Hunkiberatasuna alebitasunean. Esagupenetik praktikara.
- Gaelikoaren erabilera berreskuratzeko eskarmentu egokiak.
- Hizkuntza bizkijetza, Finlandiaren adibidea.
- Katalaniera, Galiziera eta Valentziarren erabilera gasteen artean sustatzeko eskarmentu arrakastatsuen aurkezpena.

Euskalduna Jauregia.
Abandoibarra Etorbidea, 4. Bilbo
Ordutegia Azaroaren 20an:
9etatik 14etara eta 15,30etatik 19etara.
Ordutegia Azaroaren 21ean:
9etatik 14etara

ARGIBIDE ETA IZENEMATEAK INFORMACION E INSCRIPCIONES

www.hezkuntzagida.com/biltzarra

Teléf. 94 421 30 31 Tfoa.

CONGRESO LAS LENGUAS MINORIZADAS. BUENAS PRACTICAS Y EXPERIENCIAS EXITOSAS PARA LA PROMOCION DE SU USO ENTRE LOS/LAS JOVENES

Bilbao, 20 y 21 de noviembre de 2008

- Diversidad lingüística y multilingüismo: el futuro de las lenguas está en los jóvenes
- El dominio afectivo en el bilingüismo
- Metodologías innovadoras para la recuperación del Galés.
- La convivencia lingüística en Finlandia. Un ejemplo para Euskadi.
- Buenas prácticas para promover el uso de Catalán, Gallego y Valenciano entre los/las jóvenes.

Palacio Euskalduna. Av. Abandoibarra, 4. Bilbao.
Horario del día 20:
De 9:00 h. a 14:00 h. y de 15:30 h. a 18:30 h.
Horario del día 21:
De 9:00 h. a 14:00 h.



I+G+i ALBISTEAK

Minbiziaren aurkako proiektua garatzen dabil Gaikerrek



Minbizia garaiz detektatzean lan egiten du Gaikerrek

Gaikerreko zentro teknologikoak nanopartikulen erabilera garatzeko proiektua martxan jarri du, minbizia garaiz detektatzeko eta sen-

datzeko bide berriak jorratzeko asmoz. Nanother izeneko Europako proiektupean, Gaikerrek tumore gaiztoetan eta hura kentze-

ko nanopartikulen lanetan dihardu.

Europako 18 erakunde parte hartuko dute ekimen berritzaile honetan datorren lau urteotan. Aurrekontua 11 milioi eurokoa da. Horietatik, 8,5 milioi euro Europar Batasunak eskainitako diru laguntzari dagokie.

Nanoteknologia medikuntzan ikertzeke dagoen zientzia berria dugu. Minbiziaren aurkako borrokan, nanoteknologiak medikamentuen alorrean badu zer esanik. Nanopartikulek minbizia duten gaixoen tumoreko zelulei zuzenean eragiten diete eta horren ondorioz, beharrezkoak diren medikamentu kopurua gutxitzea posible egiten du.



Iberdrolak eta Tecnaliak energia berritzailearen aldeko apustua egiten dute

Iberdrola eta Tecnalia, urako energiaren alde

Olatuetatik energia lortzeko lehen prototipoa instalatu dute Iberdrolak eta Tecnaliak. Oceantec izenarekin ezagutzen den proiektuan itsasoko olatuetatik energia sortzeko lehen prototipoa instalatu dute Gipuzkoako kostan, Pasaian, hain zuzen ere. Helburu nagusia uratik errendimendu handiko eta kostu lehiakorreko gailu bat martxan jartzea litzateke.

Lehen prototipo pretatu ondoren, proba-fasean egongo da hainbat hilabetez, zer errendimendu duen ikusteko

eta ingurunerako arriskurik ez duela ziurtatzeko. Ekimen honetako aurrekontua 4,5 milioi eurokoa izango da.

Iberdrola eta Tecnalia Korporazio Teknologikoa Perseoren bitartez ari dira gauzatzeko ekimen hau. I+G+Bn inbertsioa sustatzeko Iberdrolak aurten sortu duen elkarrean Perseo. Sei milioi euroko aurrekontua du urtean, eta energia berriztagarrien eta ingurumenaren alorrean balio teknologiko handiko proiektuak bultzatzea du helburu nagusia.

Ikerlan-IK4k etxeko energia garbiaren ekoizpenean dihardu

Etxe-esparruan energia garbiaren ekoizpena sustatzeko asmoz, Ikerlan-IK4k Europako Batasunak onartutako bi proiektutan parte hartuko du. Lehenengo proiektua, ALONE izeneko, etxeetako hotza ekoizteko eguzki-energia termikoaren erabilera datza. Egungo tresnek energia elektrikoa erabiltzen dute, eta ozono-geruza kalteu eta negutegi-efektua areagotu dezaketen hozgarriak erabiltzen dituzte. Ingu-

rumeneko kalte horiek saihesteko aukeretako bat da eguzki-energia erabiltzea. Sistema hori probatu dute eskala handian, eta orain ezinbestekoa da eskala txikiara egokitzea.

Bigarren proiektuaren (H2SUSBUILD izeneko) helburua antzekoa da, etxeko eskakizunei erantzuteko energia berriztagarriak erabilerara, hain zuzen ere. Kasu honetan, hidrogenoa biltegi-ratuz egingo da. Eraikineta-

ko energia-beharrak asetzeko energia-sistema beregain bat garatzen oinarrituko da ikerketa, eta sistema horrek ez du CO2-rik isuriko. Sistema horretan, haizetik edota eguzkitik lortzen da energia, eta energia-soberakina hidrogeno gisa biltegitratzen da, ondoren erregai berde gisa erabiltzeko eta eraikinen bero-beharrak asetzeko edo beroa eta elektrizitatea sortzeko, erregai-pilen bidez.

Loditasuna ekiditzeko elikagai osasuntsuak garatuko ditu AZTI-Tecnaliak

Zientzia, Berrikuntza eta Teknologia Ministerioaren Zenit programaren barnean kokatuta, "Pronaos" izeneko proiektua garatzen hasi du AZTI-Tecnaliaren Elikagaiak Ikertze Unitateak. Proiektu horren helburua da gizentasuna prebenitzeko elikagai berriak sortzea. Helburu orokorra gorpuzaren pisua erregulatzen duten faktore genetikoak, molekularrak eta nutrizionalek ikertzea izanda, teknologia berritzaileen bidez loditasuna pre-

benitzen laguntzeko elikagai berriak garatzen saiatuko da AZTI-Tecnalia.

AZTI-Tecnaliak proiektuan izango duen zeregina konposatu bioaktiboak txertatuz, loditasuna kontrolatzeko haragiak diseinatzea izango da, produktu horien propietate fisiko-kimikoak eta sentzorialak mantenduz.



Fruta eta barazkiak beharrezkoak dira dieta osasuntsu batean

"Pronaos" proiektuan Espainiar estatuko 13 enpresek hartzen dute parte, guztiak ere

esne-produktu, haragiki, zereal, produktu dietetiko eta edarien sektoreetakoak, baita enpresa bioteknologikoak eta osagaiak hornitzen dituztenak ere. Enpresa horiez gain, Espainiar estatu osoko zenbait ikerketazentrok ere parte hartzen

dute proiektuaren garapen zientifikoan.

Estrategiaren xedea da elikadura osasuntsua eta ariketa fisikoa bultzatzea, gizentasunaren gorako joera herriar gehiagori eragiten baitie. Munduko Osasun Erakundeke datuek adierazten dute munduan mila miloi lagunek baino gehiago gehiegizko pisua dutela, eta, horietatik, 300 milioik, guxtienez, loditasuna.

DEIA TE LO PONE EN BANDEJA ↙

0€*
+ CONEXIÓN A INTERNET 36 MESES

**Domingo 2
CARTILLA
Lunes 3
PRIMER CUPÓN**

Pantalla TFT 15,4"

Web-Cam 2 Mpix

Procesador Intel® Pentium® de doble núcleo T3200 a 2GHz

Conexión HDMI

Memoria 2048 MB DDR2

Disco Duro 160 GB Serial ATA

Regradadora DVD +/- R/RW Dual Doble Capa S-ATA

Sólo con **DEIA** puedes conseguir un portátil **AIRIS** con procesador Intel Pentium de doble núcleo a 2 GHz, disco duro de 160 GB Serial ATA y pantalla TFT de 15,4" a **0€** adquiriendo 36 meses de conexión a internet 3G.

Reúne los 20 cupones de la cartilla y recoge tu portátil **AIRIS PRAXIS** en la oficina del Corte Inglés donde hayas hecho tu reserva.

PORTÁTIL AIRIS PRAXIS N1102

<ul style="list-style-type: none"> ↘ Procesador Intel Pentium de doble núcleo T3200 a 2GHz ↘ Pantalla TFT 15,4" Panorámica ↘ Memoria 2048 MB DDR2 ↘ Disco Duro 160 GB Serial ATA ↘ Windows Vista Home Basic SP1 	<ul style="list-style-type: none"> ↘ Web-Cam 2 Mpix ↘ Lector de Tarjetas ↘ Tarjeta de Red y Tarjeta Red Inalámbrica ↘ Sonido Alta Definición con Altavoces y Micrófono Integrado ↘ Regradadora DVD +/- R/RW Dual Doble Capa S-ATA
--	--

*OFERTA VÁLIDA CONTRATANDO ADSL MÓVIL 36 MESES: 3G **simyo**

3G Simyo: oferta válida al adquirir 36 meses de conexión 3G a una velocidad de descarga de 3,6 Mbps con acceso ilimitado (hasta 1GB de datos a máxima velocidad) a 40,9 €/mes más IVA. Oferta sujeta a la aprobación de la financiera de El Corte Inglés E.F.C.A., a 36 meses en base a las condiciones particulares del cliente. Regalo de un módem 3G.



ELKARRIZKETA

ERRAMUN OSA

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Koordinatzailea

“Euskara denona eta denontzat da”

Eusko Jaurlaritzak sustatu duen Hizkuntza Politika euskararen etorkizuna bermatzea du helburu, alor ekonomikoan bereiziki. Hau dela eta, anitzak dira enpresa batek haren barneko eta kanpoko komunikazioan euskarako urteko planen diseinurako jaso ditzakeen diru laguntzak. Horien artean, Lan-Hitz deialdiaren bidez, urteko jarduketa-plana garatzeko, 60.000 eurotako laguntza jaso dezake, gehienez, enpresa batek. Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Dekretuak aurreikusitakoak betetzen laguntzeko enpresa bakoitzari 45.000 eurotako laguntza, gehienez, bideratzea ere aurreikusten du. Bi laguntza motak bateragarriak dira. Euskara planak garatzeko neurrien aplikazioa polemika ekar ditzakete zenbaitetan. Honako auzi hauek Erramun Osa Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren koordinatzailearekin izandako berriketaldian izan ditugu mintzagai.

Windows 2007 eta Vista euskaraz agertzeko asmoz, Mi-



Euskararen erabilera sustatzeko asmoz laguntza ekonomikoak eskaintzen ditu Eusko Jaurlaritzak

crosoftekin sinatu berri duzue ituna. Zein izan daiteke teknologia berrien papera euskararen susperketan?

Kaleratu berri dugun IV. Inkesta soziolinguistikoak azken urteotan euskararen hitzun erkidegoan gertatzen ari den aldaketa sakona utzi digu agerian. Izan ere, zenbat eta biztanleria gazteagoa izan orduan eta euskaldunagoa baita. EUSTATEN

arabera, hamabost urtez azpiko pertsonen %75 elebiduna da gaur egun. Horiek horrela, gazte belaunaldiak informazio eta teknologia berrien lehenbiziko kontsumitzaileak dira eta haien egunerakotasunean eremu horretan eroso bizi dira. Informazio eta komunikazio teknologia berrien eremuan euskaraz dakitenek euskara baliatzeko aukerak ugartzea garrantzi handikoa da.

Geroz eta euskaldunagoa den euskal gizartea aukera berria da, beraz, askotariko negoziotarako.

Ikastaro berria hasi dugu euskaltegietan. Aurten, 40.000 ikaslek izena eman dute euskara ikasteko. Kontuan izanda pertsona hauek lan egiten dutela eta haren denbora libre erabiltzen dutela euskararen mesederako, nola baloratzen dituzue zifrak?

Zifra horiek iazkoak dira, aurten, ikasturtearen bukarran zifra horiek gaintzea espero litekeen kontua da. Euskaltegi batean noizbait ibilitakoak edo hezkuntza sistemaren bidez lortutako maila hobetzerako datozenak izango dira etorkizunean euskaltegietara hurreratu diren ezaugarri nagusia, nire ustez. Eta hori positiboa da. Hizkuntza-gaitasuna areagotzea baitakar horrek, hitzun horien euskararen noranahikoagoa izan dadin ahalbidetuz. Hori esanda, Europar ez dago hizkuntza gutxiagotu bat indarberritzeko ahaleginean halako garrantzia daukan fenomenorik. Gure bizitzako zeri eskaintzen dizkiogu denbora libreko bi ordu egunero, asterik aste, hilerik hile, urtez urte, etenik gabe kasik? Jarduera bakarren bati, beharbada. Bada, herri-

tar asko horretan ari dira, beraz, trata ditzagun behar den errespetuz, aitortu diezaiagun gure hizkuntzari, hizkuntzen arteko bizikidetzari egiten ari diren ekarpen paregabea.

Sarritan azpimarratu duzue elebitasuna "erreala eta eraginkorra" dela. Benetan posible ikusten al duzue bi hizkuntza eguneroko bizitza maila berdinean erabiltzea?

Ez dago munduan gizarte elebidunik maila berean, simetrikoki, bi hizkuntza erabiltzen dituenik. Gure artean, hitzunaren arabera, hitzun elebidunen kontzentrazioaren arabera, erabilera-eremuen arabera, eta abar euskara gehiago edo gutxiago, gaztelania gehiago edo gutxiago erabiliko da. Hori da normala. Etxean gaztelania etxeko hizkuntza duenak eta euskara bigarren hizkuntza gisa ikasi duenak jardun-eremu barrenkoi-intimoetarako are erosoago baliatuko du gaztelania seguruenik, euskara, aldiz, jardun-eremu formalagoetan baliatzeko are eskuragarriagoa gertatuko zaio, beharbada. Euskara etxeko hizkuntza duenaren kasuan alderantziz, oro har, gertatuko da. Era berean, hitzun bakoitzak bizitzan zehar dituen bizi-baldintzen arabera hizkuntzekiko erlazioa ere aldatuz eta egokituz joango da, gainera, dakienean indartuz edo ahulduz. Elebitasun erreala eta eragingarriari buruz jardutean, bi hizkuntzak baliatu ahal izateko gutxieneko ezagutza barn-eratu beharraz ari gara hemen, nire ustez. Euskaraz jarduten duenak euskaraz segitzeko aukera izateaz, aldamenekoa traba izan gabe, ingurukoak erabiltzeko zailtasunak eduki arren, ulertzeko zailtasunik ez duelako. Euskararen erabilera areagotzeko eta orokortzeko elebitasun pasiboa, gutxienez, ahalik lasterren hedatzea erabakigarria da.



BIKAIN Ziurtagiria baino "saria" da Osarentzat

ELKARRIZKETA

Hizkuntza Politikaren oinarriak birdefinitzeko asmoa duzue abendua baino lehen. Zeintzuk dira eztabaida prozesu honen xedeak?

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2005-2009 aldirako egitasmoaren barruan hizkuntza politikaren arloan egindako bidea eta ondorengo urteetan eman beharreko pausoak aztergaitzat hartuta, hausnarketa eta debatea bultzatzea, kasua balitz etorkizunerako estrategiak, lan-ildoak eta lehenetsiak dagokion neurrian birdefinituz, ildo zedarriturik zetorren. Aztergaiei dagokienez, berriz, ahalik eta zabalena, eta parte hartzaileei dagokienez ahalik eta irekiena izatea nahi genuen gogoeta. Euskararen munduak ez ezik erdal munduak ere lekua izatean ahi genuen, nahitaez, ekimen honetan.

Hizkuntza Politika "zabalik eta zabala izan behar den eztabaida" baten ondorioz etorri behar dela adierazi duzue. Nola antzematen duzue gai honekiko euskal alderdi politikoei dute jarraera? Eta gizarte berarena?

Ekimenak piztu duen interesarekin, orain arteko partaidetzarekin eta jaso ditugun ekarpenekin pozik gaudu, bene-benetan. Hizkuntza politikaz lasai eta askatasunez eztabaidatzea eskean ari zen jendea, aukera ema-



Osa, Euskal Asteko jardueretan

teagatik beragatik asko eskertu dute ekimena herritarrek. Euskara denona eta denontzat bada, denok, inolako mugarik gabe, jardun behar dugu horretaz.

Egitasmoaren emaitzei buruz berrirten bat aurreratu ahal diguzu?

Hiru lerro nagusi aipatzen dira oraingoz, nagusiki; batetik, euskararen indarberitzearen aldeko jarduna gizarte kohesioarekin bateragarria izan behar duela; bestetik, biziberritzearen habe nagusiak adostasuna eta erritmo egokia izan behar direla; azkenik, eremu ez-formalek (etxeak, lagun arteak, eta abar) euskara in-

darberritzeko orduan duten garrantzia, horietan kokatzen baita, batez ere, adierazgarritasuna eta naturaltasuna.

Uda baino lehen komertzioaren dekretua onartu zenuten, euskal negozioetan euskararen presentzia areagotzeko asmoz. Zertan datza?

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-erabileraren progresioa eraberritzea asmoz Eusko Jaurlaritzak onartu duen Dekretua 1982ko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legeak eta 2003ko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutu-

aren Legeak xedatutakoa betetzea du xede. Halaber, Dekretua onartu aurretik eremu pribatuan eta publikoan euskarak bizi duen errealitateari buruzko inoiz egin den azterketarik zabalena egin zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, beraz, non geunden bagenekien, zer eskatzerik ez zegoen ikusi genuen. Dekretua bera ere gorpuztean enpresari-elkarteen, sindikatu nagusien, kontsumitzaile-elkarteen, afektatutako enpresa eta establezimenduen, Euskaltzaindiaren, eta eragile askoren iritziak eta ekarpenak jaso genituen. Neurrikoa da, beraz, Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-erabilerak

bermatzeko noranzkoan egindako lege-garapena da.

Nola heldu zitzaizuen momentu hartan sortutako ika-mika?

Ika-mika interesatua da. Herritarrei aitortutako hizkuntza-erabilerak egun batetik bestera bermatzerik ez dagoenez gero, progresibitate aintzat hartuz, eragin mugatua du, establezimendu eta enpresen %5-6 inguru kontuan hartzen tituelako, hori bai, establezimendu kopuru urri horrek EAEko salmentazaleraren erdia hartzen du eta urteko negozio-bolumenaren erdia baino gehiago, herritarrei erreparatu gero, beraz, eragin zabalekoa da. Hortaz, herritarrengan eragin zabala edota baliabide asko dituzten enpresei, establezimenduei eta zerbitzuei eragiten die, nagusiki. Hortik kanpo utzi dira, nahita, txikikazko merkataritza eta abar, herritarrengan eragin mugatua gora dutelako eta, gure azterketen arabera, eskakizunera moldatzeko zailtasun handiagoak dituztelako.

Batzuen iritziz eremu pribatuan sustapen politikak egin behar dira, gehienez, beraz, Dekretu hau eremu pribatuan onartezina den eskusartzea da?

Krisi ekonomiko globalaz hitz egiten ari den une honetan merkatu "librean" esku hartzeko erabakiak etengabe ari dira hartzen. Hartuko ez balira egoera are larriagoa izango litzateke, bestela. Hizkuntza kontuek ari garenean, merkatuaren legietara makurtzea hizkuntza nagusien aldeko inertzia areagotzea eta hizkuntza txikiek aurrerabiderik ez izatea dakar, ezinbestean, herritarrei aitortzen zaizkien eskubideak, horien artean, hizkuntza-erabilerak, hankapean hartuz. Eusko Jaurlaritzak Dekretuaren eskakizunetara enpresak eta establezimenduak egokitzen joan daitezkeen, horien artean hizkuntza-paisaia elebiduna eta langileen euskalduntzea, 600.000 €ko laguntza deialdia jarri du abian. Laguntza deialdi horrek Dekretura egokitzeko aurreikusitako denbora-tartea, lau urte, iraungo du. Beraz, utz ditzaugu ika-mika interesatuak alde batera. Dekretua aukera bat da, ona da enpresa eta establezimenduek ari zerbitzu hobea herritarrei eskaini diezaieten.

"Bikain zertifikazio-sistemak euskara kalitatearekin eta bikaintasunarekin lotzen ditu"

Zeintzuk dira Bikain ziurtagiriarekin eta sarien proiektuarekin lotu nahi diren helburuak?

Bikain zertifikatua aitormena da saria bainoago. Hizkuntza kudeaketa bikaintasunarekin eta kalitatearekin lotzeko urratsak egiten dituzten enpresei, establezimenduei eta zerbitzuei egiten zaion aitormena. Gure gizartea geroz eta elebidunagoa da. Gure enpresek eta establezimenduek sasoi batean haien jardunean aintzakotzat hartzen ez zituzten baloreak eta barnebildu dituzte, hala nola, ingurunearekiko begirunea, pertsonen berdintasuna eta duintasuna zaindu beharra, eta abar. Zorionez geroz eta enpresa, establezimendu eta zerbitzu gehiago dira gure artean hizkuntzen arteko bizikidetzari kasu egiten diotenak eta euskara indarberitzearen aldeko jardunean murgilduta dabilzanak. Hizkuntzen kudeaketa kalitatearekin eta bikaintasunarekin lotzeko gauza diren enpresariak, enpresak eta establezimenduak dira eta etorkizunean are gehiago izango dira bene-benetan BIKAINak.

Bikain ziurtagiria eskuratzeko zer nolako laguntza eskaintzen die Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak?

Batetik, eremu sozioekonomikoan euskara indarberritu ahal izateko planifikazio sistematikorako hainbat eredu eta lanabes sortu dira, beraz, horretan jardun nahi duenak badu nondik abiatu, badu nondik hasi eta plan bat burutzeko eta garatzeko urratsen nondik norakoaz jabetzerik; bestetik, hizkuntzaren normalizatzeko jardun nahi dutenentzat 2.700.000 eurotako laguntzak bideratu ditu 2008. urtean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Datorren urtean ere, beste horrenbeste bideratuko dira, gutxienez, planak diseinatzeko nola baita garabidean jartzeko errazteko da dirutza hori; azkenik, aholkularitza eta askotariko aplikazioak ere eskura jartzen dizkie Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak enpresa eta establezimenduei. Bikain zertifikazio sistemak enpresa, establezimendu edo zerbitzu batek duen errealitate linguistikoa aztertzeaz eta egiaztatzeaz gain euskara indarberritzeko aholkuak eta jarraibideak ere eskaintzen ditu.

ERREPORTAJEA

Krisi-kabinetea: enpresa zenbaki gorritan dagoenean

Egungo krisialdi ekonomikoak bizitza ekonomikoko alor guztietan eragina izan duela ukaezina da. Hala ere, ezegonkortasun maila altuagoa pairatu ditzaketen enpresak ertainak eta txikiak izan daitezke, orokorrean, arazoei aurre egiteko duten gaitasuna murriztagoa izaten omen baita. Enpresa bakoitzaren nortasunaren ezaugarriak aintzakotzat hartu gabe, zenbait adituk, behin egoera ekonomiko zailean egonda, enpresariei eskaini diezazkieteketen aholkuak bildu ditugu.

Oparotasuna amaitu egin da, behintzat, aldi baterako. Duela gutxira arte, dirukutxa publikoek soberakina bazuten ere, gaur egun grafiko ekonomikoaren beheko puntan gabiltza. Ondare kudeaketan eta inbertsio-fondoetan espezializatuta dagoen Jon Recacoechearen iritziz, "azken bost urteotan egoera finantzario ezin hobea izan dugu; lanpostu ugari sortu dira, inbertsioek gora egin dute, oporrak edozein lekutan igarotzeko aukera izan dugu garraio merkeei esker, eta abar".

"Lurreratze bortitza"

Recacoecheak azken urtea hartzen du aldaketarepe



Irtenbideak bilatzeko guztien arteko biltzarrak egitea beharrezkoa da

ez du zalantzan jartzen ekonomiaren lurreratzea bortitza izango dela". Horren ondorioz, krisialdi garaian negozio eta kudeaketa iraunkorrak ez dituzten enpresek porrota izan dezakete. Recacoecheak azpimarratzen duen bezala, "orain ikusiko da nortzuk aurreratu ziren eta nortzuk gorde zuten zerbait egoera larriarako"; Samaniegoren elezaharra hartuta, "nortzuk

gingo duela argi dute analistek, ekonomia prozesu ziklikoa baita. Kontua da noiz egingo ote duen gora, hau da, noiz errekuuperatuko den gure ekonomia eta, bide batez, gure poltsikoa.

Egoera finantzario txarrean dauden enpresek aspalditik arazoak dituztela diote adituek. Hau da, arazo ekonomikoak ez direla egun batetik bestera agertzen; izan ere, egoera horren atzean kudeaketa ez-zuzena eta merkatuko gorabeherei aurre egiteko ezgaitasuna antzeman ditzakegu. Analisten ustez, zuzenena litzateke, alde aurretik, egoera horretara ez heltzeko neurriak aplikatzea.

Langile guztien partaidetza

Imajina dezagun prebentzio-neurri horiek hartu ez dituen enpresa bat. Arazoak ditu, eta larriak, gainera. Nola egin diezake aurre arazoei? Ekonomiaren Kazetak kontsultatutako iturriek "langile guztien konpromisoaren garrantzia" azpimarratzen dute. Hots, "egoera larriari amaiera emateko", funtsezkoa dela "enpresako langile guztien arteko konpromisoa" lortzea, zehaztu du Recacoecheak.

saiatzeko, Finecoko analistak honako proposamenak eskaintzen ditu: "adibidez, behin-behinean soldatak egokitzea edota ordu gehiago lan egitea soldata berearekin". Neurri horiek ez dira erraz onartuko eta bideratuko langileen eta sindikatuko ordezkarien artean, noski, baina "hobe da epe labur batean langileek zailtasunak izatea, enpresa itxi behar izatea baino".

EHUko Enpresari Aplikaturiko Ekonomia Institutua-ren zuzendaria den Jon Landetaren iritziz, "enpresarekin lotuta dauden pertsonak arazoak jabetzea eta irtenbideak elkarrekin bilatzea" da egin beharreko lehenengotako lana. Landetaren aburuz, "krisi egoerak enpresan parte hartzen duten guztien gainean dauka eragina", izan ere, "denek jar ditzakete enpresaren onerako izango diren ideiak, dirua, lana eta harremanak, bes-

Konpromiso horrekin batera galera ekonomikoak modu batean geldiarazten

AEBetako ekonomiaren eskarmentutik ikasten

Esan bezala, desiragarriena izango litzateke egoera horretara ez heltzea eta muturreko neurrien aplikazioa beharrezkoa ez izatea. Hona hemen Jon Recacoecheak, Fineco balore-sozietateko analistak, enpresei egiten dizkien gomendioak:

Garai Txarretarako Aldez aurreko erreserbak prestatu

"Espainako Bankuak barealdi epean erreserbak sortzera behartu zituen bankuak eta aurrezki kuttak; horrela, krisia hiltzean, koltxoi bat izango zuten. Espainako Bankuak banku eta aurrezki kuttekin egin zuen bezala, enpresetan neurri kontraziklikoak hartzea ezinbestekoa da. Eta eskerrak horrela izan den, zeren eta ez dut pentsatu nahi zelako arazo larriak jasango genituen orain. Berdin egin beharko litzateke enpresetan".

Enpresen emaitzak epe luzera neurtu

"Bigarren aholkua kudeaketa neurtzeko denbora-irizpidea aldatzea izango litzateke. Bizi garen garai honetan, emaitzak oso epe laburretan neurtzen dira. Batzuetan, ia astero. Nire ustez, enpresaren egoera eta zuzendariek egiten duten kudeaketa epe luzeagoetan aztertu behar dira. Oso zaila da erabaki estrategikoak hartzea, behin-behineko emaitza txarrak sorrarazten badituzte, merkatuak presio handia ezartzen duelako. Estrategia ez litzateke epe laburreko emaitzen arabera finkatu behar".



Krisialdi garaietan langile talde sendoa izatea funtsezkoa da

gisa, hau da, oparoaldiaren amaiera markatu duen garai gisa. "Orain dela urtebete egoera aldatzen hasi zen", adierazi du; "orain ia inork

izan diren txitxarrak bezala bizi izan direnak eta nortzuk izan diren inurrien antzekoak". Momentu zehatz batean ekonomiak gora

ERREPORTAJEA

Laburbilduz, enpresa egoera larritik ateratzeko gomendioak:

1. Enpresaren egoeraren azterketa sakona egin, ahuleziak, zorrak eta alde indartsuak agertuz.
2. Langileekin bildu eta enpresan parte hartzen duten guztien artean egoera horretatik ateratzeko konpromiso irmoa hartu.
3. Enpresaren finantzaketa eta bueltatu behar dituen maileruak banketxeekin birnegoziatu: zorrak kitatzeko epea luzatzeko, baldintza hobekak lortzeko...
4. Kostuak murriztu.
5. Gai ikusten ez diren arduradunek kanpoko aholkularitza zerbitzuak eskaintzen dituzten kabineteak dituzte eskura.
6. Ez ahaztu enpresa bakoitzaren arazoa indibiduala dela eta, kasuan kasu, bakoitzaren irtenbidea desberdina izango dela.

teak beste". Beraz, "antolaketa sakonak aurkezteko, erantzukizunak banatzeko, jendearengan konfiantza lortzeko eta estrategia-aldaketak proposatzeko", langile guztien ordezkariek osatzen duten krisi-kabinetea sortu behar da, horretarako momentu aproposa da eta. "Denen partaidetzarekin", zehaztu du Landetak.

Zorrak bernegoziatu

Egoera larria gainditzeko, hurrengo pausoa bankuekin zorrak birnegoziatzea litzateke. Landeta ekonomialariaren aburuz, "behar ekonomikoek enpresa ito ez dezaten, zuzendariak birnegozia-

tu egin behar dute zorra". Ildo berean, funtsezkotzat ikusten du "erakundearen laguntza bilatu eta lortzea" eta, aldi berean, "kostuak murriztea".

Iritzi berekoa dugu Recacoechea. Finecoko analistararen ustez, "enpresa zailtasun finantzarioetan murgilduta badago, premiazko elkarrizketak izan beharko lituzke finantziarioa ematen dioten erakundeekin, proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa aztertzeko". Elkarriketa horien helburuak bi izango dira. Batetik, "likidezia beharrei erantzunak ematea", eta, bestetik, "enpresa birsortzea".


Zorren birnegoziazioaren bidez, barneko kudeaketari

dagokionez, enpresak azterketa sakona egitearen alde agertzen da Landeta. "Arazo ekonomikoak dituen enpresa batek aztertu egin behar du zerk merezi duen eta zerk ez", dio EHUko ekonomialariak, "soberako jarduerak eta kostuak ekidin, langileria egokitu...". Eta zergatik ez, "ohiko produktu eta prozesu batzuk uzteko eta beste berri batzuekin hasteko momentua izan daiteke".

Sarri askotan, adituek krisialdiak irazki modura funtzionatzen dutela azaldu dute. Izan ere, egoera ekonomiko txar batek agerian uzten ditu blindatuta ez dauden enpresak eta kudeaketa desegokia izan dutenak. Hori dela eta, krisialdia ausartentzako momentu aproposa izan daiteke, negoziio berria garatzeko nahiz dagoeneko muntatuta dagoen enpresa baten negozioido berriki joratzeko. Landetaren ustez, "beharriaren eta beldurrek irudimena astintzen dute", eta berrikuntza "beharrezkoa" da krisialditik indarrez ateratzeko. Hori dela eta, "pertsona askoren irudimena martxan jartzen bada, aurrera egiteko aukera gehiago dago".

Krisialditik sendoago irten

Honaino azaldutako aholkuak aldatu egin daitezke, enpresa bakoitzaren izaera eta arazo motaren arabera. "Jokatzeo aukera bideragarriak hautatu behar dira",



Krisiak agerian uzten du enpresen ahultasuna

azaldu du EHUko ekonomialaria den Jon Landetak, "norberearen ahuleziez eta sendotasunez jabetuta, eta inguruak eskaintzen dituen aukerak eta arriskuak ikusita".

Errekuperatze prozesu hau "erraza" ez dela onartzen badu ere, krisialdi garaietan "lider berriak" sor daitezkeela dio, "garai txarretan erreferentziak galdu egiten direlako eta enpresako langileek beren liderrei begiratzen dietelako, agindu

eta lasaitasun eske". Horrez gain, kanpoko laguntza "mesedegarria" izan daitekeela nabarmendu du Landetak; "zuzendari berria edo aholkularitza baten kontratazioa", adibidez. Azkenik, "fedez eta indarrez" gogor ekitea gomendatzen du. "Gure enpresek badakite nola gainditu oztopoak; beraz, ez dut zalantzarik egoera honetatik sendoago irtengo garela", baieztatu du Recacoecheak.

AEBetako ekonomiaren eskarmentutik ikasten

AEBetako analistek esperientzia handia dute ekonomiaren gorabeheretan. Irabazi gehien izan dituzten enpresak nahiz suntsiketa handienak bizi izan dituztenak Sam Osabaren herrialdean eman dira. Porrot egoera ez ezagutzeko lan egin behar dute enpresen arduradunek. Horretarako, hona hemen zenbait aditu estatubatuarrek ematen dituzten aholkuak:

Enpresaren aurrekontu zehatza egin

Enpresa arrakastatsuen eta arazoak dituen enpresaren arteko desberdintasuna aurrekontuan datza. Ez aurrekontu handia izatean, baizik eta aurrekontu hori bera izatean. Adituek aurrekontuaren garrantzia azpimarratzen dute. Ondo egindakoa izan behar da eta, noski, eguneratua, eta aurrekontuarengan eragina izan dezakeen edozein erabaki ekonomiko



Lehman Brothers AEBtako azken porrot ezagunetarikoa izan da

hartu baino lehen, aurrekontuaren analisi egin beharko da. Benetan bideragarria al da momentu honetan hori erostea? Dirurik gabe gera naiteke? Behin erabakita, aurrekontuaren aldaketa egin beharko da.

Beharren arabera, aurrekontua sinplea nahiz sakona izan daiteke.

Behar baino lehen, maileguak eskatu

Ekonomialarien aipu baten aburuz, dirurik behar ez dutela frogatzen duten enpresei baino ez diete dirurik utzi behar bankuek. Hori horrela izanda, aholkua bankuen aurrean irudi ona eratzeko datza, hots, 90 egunik behin behar ez diren mailegu txikiak eskatzea eta dirua itzultzeko epea bukatu aurretik zorra kitatzea. Eta horrela egitea zenbaitetan. Horren ondorioz, bankuek ikusiko dute enpresaria formaltasunez ari dela, eta, ondorioz, enpresak benetan diruaren premia duenerako, baldintza hobekak eta diru-kopuru altuak eskatzeko aukera izango du enpresariak.

ERREPORTAJEA

BIKAIN Ziurtagiria: euskararen bermea enpresetan

Euskararen presentzia areagotzea betidanik izan da edozein euskal hizkuntza politikaren funtsa, enpresetan eta komertzioetan bereziki. Xede hori betetzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Bikain Ziurtagiriak prestatu ditu, boluntarioki izena eman duten enpresen euskara maila ebaluatu eta saritzea helburu izanda.

Eusko Jaurlaritzak euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen duten enpresa edota erakundeak ematen dien ziurtagiria da BIKAIN. Izaera ofizial, publiko eta doakoa izanda, BIKAINek hiru maila eta kolore ditu, enpresa edota erakunde jakin batek lortu dituen puntuen arabera. 200-399 puntu bitarteko enpresentzat, Ziurtagiria beltza izango da eta euskararen oinarritzako maila egiaztatuko du. Tarteko maila zilar kolorekoa da eta 400-699 puntu

bitartean lortzen duten enpresei egokituko zaie. Urrezko kolorea goi mailako euskara frogatzen duten enpresa nahiz erakundeentzat izango da, 700-1.000 puntu bitartekoentzat, alegia.

Ziurtagirien aurkezpena

lazio abenduan izan zen BIKAIN Ziurtagirien jaiotza ofiziala. Ziurtagiriaren aurkezpenak ohorezko gonbidatuak izan zituen, hala nola, Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria, Miren Azkarate



Miren Azkarate, Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria eta Belén Greaves BIKAIN sarien aurkezpean

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Patxi Bazterrika Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Erramun Osa Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren koordinatzailea, Miguel Lazpiur Confebaskeko presidentea eta Xabier Alkorta Euskaliteko presidentea, hain zuzen ere. Lehendakariak bere hitzaldian azpimarratu zuenez, "euskara barneratzen duten enpresek lehiakortasuna irabazten dute, berrikuntza eta modernitate gaitasuna erakusten baitute".

Bilbon izandako aurkezpenean, ereduak esperientziaren funtsa ere azaldu zuten arduradunek. 2007a Ziurtagiriaren baliabideak frogatzeko urtea izan da. Horrela, Euskadiko zenbait enpresa BIKAIN Ziurtagiria jasotzeko izena emandako lehenak izan ziren, hala nola, Eika, ELAY, Elkargi, Eroski, Euskaltel, Cegasa,

Matia Elkargoa eta Goiiena, besteak beste.

Ziurtagiria Lurralde Historikoko bakoitzeko Foru Aldundiaren, Euskadiko Kooperatiba Taldearen, Confebasken, Adeguiaren, Cebeken, Searen, Euskaliten eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren babespean garatu da.

"Enpresari bikainak"

"BIKAIN Ziurtagiria aitormena da, saria bainoago", zehaztu du Erramun Osa, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren koordinatzailea. "Euskararen kudeaketa kalitatearekin lotzeko gauza diren enpresariak nahiz en-

presak dira BIKAIN ziurtagiriak lortuko dituztenak", esan du Osa, "eta etorkizunean are gehiago izango dira bene-benetan BIKAINak", azpimarratu du harro-harro.

Aspalditik dator gure hizkuntza suspertzeko saiakerak. Iritzi berekoa da Osa: "esparru sozioekonomikoetan euskara indarberritzeko ahaleginak ez dira gaurkoak", azaldu du, "XIX. eta XX. mendeetan zehar euskara eremu sozioekonomikoan hedatzeko eta indartzeko hainbat ahalegin egin baitziren". Euskara normalizatzeko saiakera guztietatik, berriz, "sistematizatuenak" 90eko hamarkadan eman ziren. Arrazoiak, Osaren aburuz, "gure gizartea geroz eta elebidunagoa" dela.

Euskararen etorkizunari dagokionez, Osa honako galdera hauek egiten dizkio bere buruari: "gurea bezalako gizarte elebidun batean, zein da enpresek eta establezimenduek hizkuntzekiko hartzen duten gizarterantzukizun korporatiboa? Zein da hizkuntzen arteko bizikidetzeta eta gizartea kohesionatzeko egin dezaketen ekarpena? Euskarari bizkar emanda jardutea?". Bakoitzak erantzun diezaiola bere buruari.

Informazio gehiago eskuratzeko, jo ezazu

www.euskalit.net/bikain/ziurta.php webgunera.



Patxi Bazterrika, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordea

"Bikain ziurtagiriak euskara indarberritzeko aholkuak eskaintzen ditu"

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak izan da Bikain Ziurtagirien suspertzailea. Sailburuordetzaren koordinatzailearekin sariei buruz mintzatu digu.

Bikain ziurtagiria eskuratzeko, nolako laguntza eskaintzen du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak?

Batetik, eremu sozioekonomikoan euskara indarberritu ahal izateko planifikazio sistematikorako hainbat eredu eta lanabes sortu dira; beraz, horretan jardun nahi duenak badu nondik abiatu, badu nondik hasi eta badu plan bat burutzeko eta garatzeko urratsen nondik norakoaz jabetzerik. Bestetik, 2008. urtean,

hizkuntzaren normalkuntzan jardun nahi dutenentzat 2.700.000 euroko laguntzak bideratu ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Bikain zertifikazio sistemak, enpresa, establezimendu edo zerbitzuek duten errealitate linguistikoa aztertzeaz eta egiaztatzeaz gain, euskara indarberritzeko aholkuak eta jarraibideak ere eskaintzen ditu.

Zeintzuk dira Bikain ziurtagiriarekin eta sarien proiektuarekin lortu nahi diren helburuak?

Bikain ziurtagiria, aitormena baino gehiago, saria da. Hizkuntza kudeaketa bikaintasunarekin eta kalitatearekin lotzeko urratsak egiten dituzten enpresei, establezimenduei eta zerbitzuei egiten

zaien aitormena. Gure gizartea gero eta elebidunagoa da. Gure enpresek eta establezimenduek sasoi batean euren jardunean aintzartat hartzen ez zituzten balioak berenganatu dituzte, hala nola, ingurunearekiko begirunea, pertsonen berdintasuna eta duintasuna zaindu beharra, eta abar. Zorionez, gero eta enpresa, establezimendu eta zerbitzu gehiago dira gure artean hizkuntzen arteko bizikidetzari kasu egiten diotenak eta euskara indarberitzearen aldeko jardunean murgilduta dabilzanak. Hizkuntzen kudeaketa kalitatearekin eta bikaintasunarekin lotzeko gauza diren enpresariak, enpresak eta establezimenduak dira, eta etorkizunean are gehiago izango dira bene-benetan BIKAINak.

ELKARRIZKETA

XABIER MAIDAGAN

CIC marGUNEko Zuzendaria

“Eskulan merkearekin konpetitzeko modu bakarra bereiztea da, hobe izatea”

Xabier Maidaganentzat aldatuta egunak izan dira azken aste hauek. CIC marGUNEko zuzendariak lan-egoitza berria izango du, Innobasquen, eta bertan Nazioarteko Saileko ardurak beteko ditu. CIC marGUNETik alde egin baino lehen, Ekonomiaren Kazeta Maidaganekin solasean egon da Euskadiren etekin handiko ekoizpen mailari buruz mintza egiteko.

2002. urtean jaio zen CIC Margune: CIC guztietatik, zertan ezberdintzen da Margune?

CIC marGUNE beste CICEtatik bereizten da existitzen diren ikerketa erakunde batzuk elkartu direlako, etekin handiko ekoizpen teknologia arloan, herri mailako ekintza koordinatu bat aurrera eramateko.

Abangoardiako teknologia garatzeko personal kualifikatu nahikorik al dugu gaur egun Euskadin? Ba al dago benetan aditu-ihesaldirik?

Gure manufakturazio arloan, behintzat, badago adina personal kualifikatu Euskadin eta esan dezakegu gehien-ak ikerkuntza zientifikoko



Maidaganek Innobasquen garatuko ditu bere lan berriak

zentroetan ditugula. Aditu-ihesari buruz, egia da aditu askok Euskaditik kanpo aritzen direla baina kasu askotan joan-itzuliak izaten dira, hau da, denboraldiak ematen dituzte beste herrialde batzuetan ezagutza zabaltzeko, adibidez doktoretza egiten, baina gero Euskadira bueltatzen dira eta ikasitako hemen aplikatu dezakete. Gure

personala animatzen dugu kanpoan kurtsuak egiteko ikasitako gero hemen erabiltzeko.

Berrikuntzak enpresaren garapena eta aldi berean gizartearen garapena al dakar?

Era guztietako berrikuntzak enpresaren garapena dakarrela ukazina da batez ere

mundu globalizatu honetan beste herrialde batzuetako eskulan merkearekin konpetitzeko modu bakarra bereiztea delako, hobe izatea eta hori berrikuntzarekin bakarrik lortu ahal da. Eta industria opor batek, noski, inguruko gizartean eragina dauka lana dakarrelako eta aberastasuna gizartearentzeko.

Petrolioaren murrizte eta garestitzeak berrikuntzaren bilaketa geldiarazten du?

Petrolioaren murrizteak kaltea dakar ziklo ekonomikora baina beste alde batetik ikusita, petrolioaren urritasunak ikerketa eta berrikuntza bultzatu du energia iturri berriak ikertuz (bioerregaiak) energia alternatiboak lortzeko. Honen adibide, orain dela gutxi sortutako CIC berri bat da, energyGUNE, hain zuzen ere.

Asia eta Europar Ekialdeko herrialdeko eskulan merkeagoekin lehiatu ezin badugu ere, gure erronka espezializazioa bilatzea izango al da? Zeintzuk dira lehiakortasuna ez galtzeko gure baliabideak?

Maila teknologiko hobe izatea da herrialde hoiekin lehi-

atzeko modu bakarra esku lanarekin ezin dezakegula. Baina herrialde hauek teknologia aldetik hobetzen joango dira beraz denborarekin lehia bat ezarriko da teknologia arloan eta horren ondorioz suspertze egoeran dauden herrialdeak ere beraien kostuak areagotzen hasiko dira.

Zer nolako eragina du krisialdi ekonomikoak euskal berrikuntzan?

Krisialdiaren eragina in- dustriaren berrikuntzan enpresa buruen baitan dago baina ez lezake ondorioz izan behar berrikuntzan, hau bermea baita etorkizunera begira.

Ikertzen ari zareten azken berrikuntzaren berri eman ahal diguzue?

Aurkeztutako azken proiektua "Manufacturing 0,0" da eta helburua litzateke, gaztelaz esaten den bezala, SIN produktuak lortzea da, hau da, akats eta hondakin gabekoak, eraketa gabeko eta diskriminazio gabeko produktuak lortzea, azken finean produktuak modu ekonomiko eta iraunkor batean egitea.

Lan erronka berria: CIC marGUNETik Innobasquera

Zertan datza Innobasqueko Nazioarteko Saileko Zuzendaritzaren zure lanpostu berria?

Innobasqueko Nazioarte Saileko Zuzendari bezala nere gain hartuko ditudan erantzukizunen artean euskal enpresen presentzia dinamizazioa nabarmendu daitezke, batez ere enpresa txiki eta ertainak, nazioarteko proiektuetan, edo Euskadiren irudi berritzailea zabaltzea, nazioarte mailan aliantzak eta kooperazioak sustatuz.

Zer animatu zaitu proposamena onartzera?

Dudarik gabe Innobasque herriaren eta herriarentzako apostu garrantzitsu bat da, eta nigan pentsa izana Nazioarte Sailer bezalako depar-

tamentua zuzentzeko erantzukizuna da eta ohore bat, aldi berean, lana erronka bilakatzen duena eta hain ekintza garrantzitsu batean parte hartzea eta kolaboratzera animatzen nauena.

Zeintzuk dira lanpostu honetaz dituzun itxaropenak?

Lehenik eta behin, nire aurrekoak martxan utzi dituen helburu guztiak betetzen saiatuko naiz eta bigarrenik, nire taldearekin bat eginez euskal gizarteari balio erantsia ematen ahaleginduko naiz, kanpora zabaltzeko plan baten bidez eta inguru horretan agian faktorerik garrantzitsuena euskal erakundeetatik eramaten diren nazioarteratzeko ekintza desberdinen sinkronizazioa izan daiteke.



Innobasque Bizkaiko Parke Teknologikoan duen egoitza

GADGET

Internetetik aurki ditzakegun gadgetak

Interneteko sareak praktikoak edota bakarrik dibertigarriak izan daitezkeen tramankuluak eskaintzen ditu. Hona hemen hilabete honetan aurkitu ditugunen artean, Ekonomiaren Kazetak aukeratu dituenak:

USB txakurrak

Hona hemen funtzio berezirik ez duten tramankuluak baina oparitzeko dibertigarria izan daitezkenak. Txakur marroiak Harley du izena eta beltza, Duke. USBra konektatzen denean, beste txakurraren gainean egingo liratekeren berdina egiten du gure ordenagailuan.



SALNEURRIA: 8€ inguru

NON EROSI:
www.thinkgeek.com

Dutxa eramangarria

Etetik kanpo ibiltzean, oportetan batez ere, hain beharrezkoa dugun dutxa freskagarria noiz edo non hartuko dugun zalantzarik handiena izaten omen da. Poltsa beltza uraz betetzen da eta goi-leku batean lotuz, 10 litro ur eskura izango dituzu edozein lekutan dutxa hori hartzeko. Praktiko baino praktikoagoa.



SALNEURRIA: 13€

NON EROSI:
www.iwantoneofthose.com

Eguzkia energiako telefono mugikorra

Nori ez zaio telefono mugikorra bateria gabe geratu? Eta justu dei garrantzitsu baten zain gaudenean. Horrelakorik berriro gerta ez dadin, hona hemen mugikorrari bateria kargatzeko objektu berria. Naturarekiko errespetagarria, eguzkiaren energiarekin kargatzen du batera.



SALNEURRIA: 12€

NON EROSI:
www.gadgetshop.com

Intimitatea bermatzeko pantaila

Enpresa gehienetan informazioaren gordetzea oso inportantea izaten omen da. Pantailan agertzen den informazioa bermatzeko, inguruan edo ondoan dauden pertsonen ezin izango dute hura ikusi, soilik pantailaren aurre-aurrean egon da.



SALNEURRIA: 125€, 24 hazbeteko luzeerako LCD monitoreentzako

NON EROSI:
www.businesswire.com

ARDOAK

Portugaleko ardoak

Portugaleko lurraldeak aberastasun ugari ditu eta Iberiar penintsulan asko ezagutzen den haierariko bata ardo da, oportoak, hain zuzen ere. Ingeles gustura sortuta, 300 urteko historia du oportok. Izan ere, ingeles aipu batek horrela dio, "Oportoko ardoak bi betebeharrak ditu: beltza izatea eta edan egitea".

Ardo hauek aireko tenperaturara mantendu behar dira, inoiz ez hozkailuan freskatutakoak eta gehiegizko tenperatura dutenean, hobe da edan baino lehen, etzanda, leku fresko uztea. Douroko ibaiko haraneko mahastietan ekoiztuta, oportoko mota desberdinak daude. Hona hemen bakoitzaren deskribapena eta gomendioak:

Vintage

Gomendioa:

Osborne Vintage 1995

Deskribapena:

Ardo desberdinen nahasketak ez dituen ardo da. Bi urte ondoren, bere zapoaren maila gorena lortzen du.

Primeran doa:

Gazia den gosagarriarekin

Salneurria: 23€

Behin botila zabalik, iraupena: 1-2 egun



Tawny

Gomendioa:

Oporto Messias Tawny

Deskribapena:

Ruby baino arinago zahartzen den ardo dugu, 3-5 urte inguru igaro ondoren edateko prest dagoena.

Primeran doa:

Fruitua duen postrearekin

Salneurria: 7 €

Behin botila zabalik, iraupena: 3-4 aste



Ruby

Gomendioa:

Oporto Osborne Ruby

Deskribapena:

Urte desberdinetako ardoen konbinaketan datza, errubi koloreko ardo gaztea da.

Primeran doa:

Jan aurretik, fruitu lehorrekin

Salneurria: 9 €.

Behin botila zabalik, iraupena: 8-10 egun



Late Bottled Vintage (LBV)

Gomendioa:

Oporto Barros LBV

Deskribapena:

Haritzeko upeletan 4-6 urte bitarte ematen ditu eta Vintage baino arinagoa da.

Primeran doa:

Roquefort gaztarekin

Salneurria: 12 €

Behin botila zabalik, iraupena: 4-5 egun



JATETXEA

Akelarre Jatetxea



Pedro Subijana dugu jatetxe honen sukalde burua. Modernitatea eta tradizionaltasunaren arteko uztarketa eskaintzen du Donostiako jatetxe honek. Igeldoko mendian kokatuta, aipamen berezia merezi du jatetxearen webgunek. Errezeta liburu baten bidez, Subijanak horren inguru ezagutzeko grinak dituenarentzat haren sukalde-sekretuak eskaintzen dizkio. Hemendik gutxira Akelarre hotela zabalduko dute jatetxearen ondoan, 21 logela eta spa zerbitzuak izango dituenak. Subijanaren plateraz gozatu ondoren, zenbait ariketa fisi-

koak egitea beharrezkoa egiten da. Horretarako, Ondarretako hondartzara joatea primerako aukera izan daiteke eta ondoren, Maria Cristina pasealekuko kilometroak ematea. Telefonoz ordua eskatzekoan, zer jan nahi izango duguna zehaztuko dugu. Bi aukera izango ditugu: Dastapen menuren bata ala kartako edozein platera hautatzea (aldez aurretiko eskaera egin ondoren). Hona hemen Akelarre eskaintzen dituen Dastapen Menuen adibidea:

Aranori Menua

Platerak

- Txangurro hotza eta beroaren ensalada bere koralarekin
- Perretxiokoak "pasta arrautzekin" duena
- Potxa ensalada plantxa gaineko sakramentuekin
- Barbarin integrala saltsako "fusili"ekin
- Arkume solomoa egurikatuz bizian errea
- Esnea eta mahatsa, gazta eta ardoa bilakaera paraleloan
- Mertxika ogi torradaarekin eta almendrekin

Salneurria: 135€

Akelarre Jatetxea / Aita Olorkaga pasealekua, 56 (Igeldo) / 20008-Donostia www.akelarre.net / Telf 943 311 209

AISIALDIA

Estresari aurre egiteko proposamena

Lanak aste osoan zehar eragiten duen estresari aurre egiteko, hona hemen hilabete honetan Ekonomiaren Kazetak proposatzen duen aisialdirako ideia:

ESPIRITU-BAKARTZEAK

Oporraldiak igarotzeko mundu guztientzako aproposa izango ez den proposamena ekartzen dizuegu hilabete honetan, hala nola, monasterioetan eman ditzakegun egonaldiak, non bakardadea eta isiltasuna dira nagusi. Bakezko eta presarik gabeko egonaldiak dira. Ez da beharrezko erlijioso izatea oporraldi ezberdin hauetaz profitatzeko, monjek eskaintzen dutena hirietako bizitzekin apurtzea bilatzen baitute.

Espainiako estatuan mila komentu eta erlijio-zentro inguru daude. Haietariko 600etan ostatu zerbitzuak eskaintzen dituzte. 500etan soilik lo egin daiteke gomen-datze baten menpean. Hau dela eta, 70tan bakarrik dira sarrera irekia dutenak eta gehienak Espainiako estatuko iparraldean daude.

Asteburua Nafarroako Leyre Monastegian ematea da hileko Ekonomiaren Kazetaren proposamena. Iruñetik 50 kilometrora dago Leyreko Xalbador Deunaren Beneditarreko Abade-etxea,



Leyre Monastegia, Kanpoko ikuspegi batetik

Naturako giro paregabearen erdian, Leyreko zerran, hain zuzen ere.

Ekitaldiak:

- Parapentea eta delta hegala Leyreko zerran
- Ur kirolak eta arrantza urtegian



Arau garrantzitsuak:

- Ostatu baino lehen monjeekin aurretik finkatutako diru kopurua ordaindu behar izango da, zure egonaldiak monje elkarteentzat diru-gastua suposatuko baitu
- Bakea eta lasaitasunaz gozatzeko oporraldiak dira, beraz, oso garrantzitsua da monastegitik isiltasunez ibiltzea eta haien ohiturak errespetatzea
- Gelak, orokorrean, oso xumeak dira, ez itxaron inolako luxurik
- Funtsezkoa da haien ordutegiak errespetatzea, batez ere, jateko ordutegiak
- Ostalari guztiak gaueko 21:30 baino lehenago egon behar dira monastegi barruan, kanpoko atek ixten direlako

Ostatua:

Bi aukera ditugu:

- Monastegiaren hotelean logela alokatzea (tankera guztiko pertsonak onartuko dituzte)
- Monastegian bertan ostatatzea (bakarrik gizonak eta alde zuzeneko eskatutako baimenaren ondorioz)

Zer bisitatu:

- Leyreko Monastegia bera
- Xabierreko Jauregia
- Zangozako herria eta eliza
- Nafarroako Pirineoko harana

SUDOKU

Buruari gogor eutsi eta ebatzi sudoku hau

	8			4				
3	2		6				5	
				5			7	6
5						3	4	
								5
			2	3	9			
2				1			6	
	4				8			
					5			9

LAN ESKAINTZAK

TELEMARKETING TEKNIKARIA ETA BULEGARIA ANDOAINEN
Telemarketing teknikaria eta bulegaria Andoainen, enpresa pribatuekiko eta erakunde publikoekiko telefono bidezko komunikazioa eta gestioen jarraipena, sektore pribatuekin, merkataritza-izaeraz. Ohiko bulegalari lanak, datu baseak, gutun bildaketak, epe kontrola. Telefonozko harremena eskarmen-tua. Amatasun ordezkapen bat. 1500€ gordin.

INKESTAGILEAK ASTIGARRAGAN LAN EGITEKO
Inkestagileak Astigarragan lan egiteko. Eaeke bi hizkuntza ofizialen ezagutza maila altua ahoz eta idatziz, ikasketa ertainak, batxilergoa edo baliokidea. Baloratu beharrek baldintza: kotxea. Kontratu mota por obra delakoa. 2/3 aste. Jornada osoa (goiz eta arratsalde) . 1300 €. Hasteko aurreikusitako data: azaroak 5.

ADMINISTRADOR DE SISTEMAS ORDIZIA
Administrador de sistemas Ordizia, encargado de gestión y mantenimiento de los sistemas de clientes. Trabajo de programación y desarrollo. Gestión y administración de redes informáticas bajo Windows y Linux. Gestión de servidores y equipos desktop, programación en php, java, c++. Net y gestión de base de datos. Euskera, inglés y b1. Contrato de 1 año con posibilidad de continuar. Incorporación inmediata

INGENIERO/A COMERCIAL
Empresa distribuidora de componente eléctrico busca TECNICO COMERCIAL para Bizkaia. Tareas a realizar: seguimiento cartera de clientes y dar soporte técnico al equipo comercial. Imprescindible titulación de Ingeniería Electrónica, preferentemente a nivel superior; experiencia mínima de 2 años en componente electrónico y buen nivel de inglés. Se ofrece contrato indefinido a jornada completa. Salario: 21000 - 24000 euros bruto/año. Comisiones sobre ventas, dietas, kilometraje. Incorporación inmediata.

CONSULTOR/A
Realización de estudios y/o análisis de políticas públicas en la gestión de proyectos o en la gestión empresarial. Imprescindible licenciatura en económicas reciente y dominio de inglés. Cº prácticas de 1 año con posibilidad de indefinido pasado este tiempo. Jornada de lunes a jueves de 9 a 14h y de 15 a 18. 30h, viernes de 9 a 15h. Incorporación inmediata.

INTERPRETE DE CHINO
Se necesitan interpretes de chino para empresa del sector de automoción en Vitoria. El candidato realizara labores de interpretación de enlace con un grupo de técnicos chinos. Jornada y horario: a determinar. Contrato: por obra o servicio. Incorporación inmediata.

MONITOR/A COMERCIAL
Se precisa monitor/a comercial para dirigir un equipo comercial. IMPRESCINDIBLE: experiencia en puesto similar. VALORABLE: experiencia en Dpto. Comercial. CONTRATO: temporal de 6 meses con posibilidad de conversión en indefinido. JORNADA: completa. SALARIO: 30.000 Euros/año. INCORPORACIÓN: inmediata.

ERANTZUNAK

8	1	6	3	4	9	5	7	2
7	4	2	6	8	5	3	1	8
2	5	3	9	1	7	4	6	8
4	6	8	5	2	3	9	1	7
5	7	1	8	6	9	3	4	2
1	9	4	3	5	2	8	7	6
3	2	7	6	8	9	1	5	4
6	8	5	1	7	4	2	9	3

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 94 421 30 31
E-MAILA: ekonomiarenkz@leizaola.org
POSTA HELBIDEA: 612 Posta Kutxatila, 48080 Bilbao
TESTUAK ETA DOKUMENTAZIOA: Tais San José
MAKETAZIOA: Gonzalo Peña
EUSKARAREN ARDURADUNA: Labayru Ilastegia
EGILEA: Leizaola Elkarte
HARPIDETZAK: 94 421 30 31 telefonon.



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Ekintza honek Bizkaiko Foru
Aldundiaaren Kultura Sailaren
laguntza jaso du.

€konomiarenKZ

Euskal Ekonomiaren Kazeta

2008ko Azaroa

Lo nuestro es **EL FUTURO**



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Lo nuestro es garantizar un mañana lleno de oportunidades para la juventud de Bizkaia. Un futuro que se construye desde el presente, con programas educativos y de formación, ayudas y subvenciones, propuestas culturales y de ocio. De esta manera, nuestro compromiso es sembrar para recoger, crear riqueza para repartirla en una Bizkaia que cada día es más dueña de su porvenir.

BIZKAIA, lo nuestro